



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

---

# Soziolinguistika albistaria

---

**113. zenbakia**

2021eko abenduak 17 – 2022ko urtarrilak 13

---

## Soziolinguistika Klusterreko albisteak

**Izaro Arrutik eta Sandra Prietok irabazi dute Txillardegui-Hausnartu soziolinguistika saria hezkuntza soziolinguistikorako baliabideen azterketarekin**

Abenduaren 22an ospatu zen Gasteizen Txillardegui-Hausnartu soziolinguistika sariko banaketa ekitaldia. Hezkuntza soziolinguistikoa: Euskal Herrian han eta hemen dauden material eta baliabideen bilketa, azterketa eta sailkapena izan da aurtengo lan saritua eta lehen hiru lanetako aurkezpenak dagoeneko eskuragarri daude webgunean.

**Etorkizuneko euskal hezkuntza sistemari buruzko hitzarmenaren oinarriak zehazteko ponentzian ekarpena egin du Soziolinguistika Klusterrak**

Duela hilabete batzuetatik hona Eusko Legebiltzarrean Hezkuntza Lege berria sortzeko oinarri izan nahi duen ponentzia lantzen ari dira. Saioz saio arlo askotako aditu eta eragileak gonbidatuak izan dira eta abenduaren 21eko saioan parte hartu zuen Pablo Suberbiolak Soziolinguistika Klusterraren izenean.

## **Gipuzkoa Berdinagok antolatutako hitzaldi batean, Garazi Goia idazle eta ikus-entzunezko adituak euskal ikus-entzunezko hedabideen azterketa egin du, ikuspegi global batetik**

[Gipuzkoako Foru Aldundia] Ikus entzunezko sektorean mundu mailan ikusten ari diren joerak ekarri ditu Garazi Goia idazle eta ikus-entzunezko adituak Etorkizuna Eraikiz gunean eskaini duen hitzaldian. Gipuzkoa Berdinagok antolatuta "Ikus-entzunezkoak, ikuspegi globaletik begiratuta" izan zituen hizpide.

## **Hizkuntza-aniztasunaren itsasoan euskararen lekua finkatu beharraz**

[Euskonews] EAEko udalerrietan jatorri atzerritarra duten pertsonak 250.000 inguru dira; populazioaren %11 eta %14 artekoa da herrialdearen arabera, eta hortik oso gorakoa zenbait udalerritan. Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian kopuruak desberdinak dira, baina asko dira partekatutako erronkak.

## **Eider Saragueta: "Oraindik edozein esparrutan euskara erabiltzeko aukera izatea falta da"**

[Gazteberri] Eider Saragueta DREAM (Donostia Research Group on Education and Multilingualism) ikertaldeko kidea da. Soziolinguistika Klusterra eta UEMArekin batera zuzendari lanean ari da "UEH ikerketa: Udallerri Euskaldunetako Haurrak eta euskara" izeneko proiektuan.

—

## **Ikerketak**

### **Euskararen aurkako diskurtsoa sarean nola eraikitzen duten aztertu dute Alemaniako bi ikertzailek**

[BERRIA Kataluniako Revista de llengua i Dret aldizkariak abenduko alean argitaratu du Karolin Breda eta Philipp Kraemer ikertzaile alemaniarrek eginiko azken ikerketa. Horretan aztertu dute euskarafoboen Interneteko eztabaidetan zein argudio eta mekanismo erabiltzen dituzten.

### **COVID-19 and its impact on Indigenous language revitalization**

[University of Victoria] Early on in the pandemic, it became clear that language learning would not be able to continue in many of the ways it had previously. Witnessing this, the research team presented a goal of researching, documenting and studying the shifts that have occurred in recent times.

---

## Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

### Topaldiaren 20. edizioan, kulturgintzaren eremuan fokua jarrita

[Topagunea] 2022ko Topaldia, urtarrilaren 27an, Bilborocken egingo da, Kulturgintzan euskaltzale. Zein da euskaltzaleon rola kulturgintzan? izenburuean. Hain zuzen ere, izenburuak planteatzen duen galderari erantzuteko lehen urratsak ematen hastea da lortu nahi da aurtengo ekitaldiarekin.

### III Congr s Internacional sobre Revitalizaci  de Lenguas Ind genes i Minorizades (III CIRLIM)

[Universitat de Girona] El III Congr s Internacional sobre Revitalizaci  de Lenguas Ind genes i Minorizades (III CIRLIM) se celebrar  entre els dies 13 i 16 de setembre de 2022 en dues seus: la Universitat de Girona i la Universitat de Perpiny  Via Domitia.

### I Congreso Internacional sobre el Derecho a la Lengua: Pol ticas Ling sticas y Traducci n e Interpretaci n en Servicios e Instituciones P blicas

[Universitat Jaume I] Este congreso busca articular un foro para visibilizar la diversidad de situaciones y soluciones desde perspectivas multidisciplinares, interdisciplinarias y transdisciplinarias.

### Colloque « ducation, langues minoris es et plurilinguisme: Quels  cueils? Quelles politiques linguistiques?», Universit  de Mons (Belgique), 1-2 septembre 2022

[Xarxa Cruscat] Appel   communications pour le colloque « ducation, langues minoris es et plurilinguisme: Quels  cueils? Quelles politiques linguistiques?», qui se tiendra (esp rons-le en pr sentiel) le 1er et 2 septembre 2022   la Facult  de traduction et d'interpr tation (FTI) de l'Universit  de Mons, en Belgique.

### Festival of Indigenous Languages (14th-23rd January)

[Endangered Languages Project] Learn from global Indigenous language revitalization leaders: what's most encouraged and inspired them in their last decade(s) of work, and their visions for the coming decade!

## Liburuak eta artikulu zientifikoak

### Irakaskuntzako praktika eleanitzak, e5 proiektua eta gazteen hizkuntz ideologiak, besteak beste, *Fontes* aldizkariaren 132. zenbakian

[*Fontes Linguae Vasconum*] Duela aste batzuk argitaratu zen aldizkariaren azkenengo zenbakia eta soziolinguistika gaiak jorratzen dituen hainbat artikulu daude bertan. Esteka honetan kontsultatu ditzakezue artikulu guztiak.

### [Global predictors of language endangerment and the future of linguistic diversity](#)

[Nature] We use an analysis of 6,511 spoken languages with 51 predictor variables spanning aspects to show that, counter to common perception, contact with other languages per se is not a driver of language loss.

### Hizkuntz zuzenbideari buruzko hirugarren bilduma argitaratu du Euskaltzaindiak

[Euskaltzaindia] Euskaltzaindiak 2007an abiatutako egitasmo baten hirugarren emaitza aurkeztu du gaur bere egoitzan: Hizkuntza-zuzenbidea. Euskaltzaindikoko kideen hitzetan, proiektuaren helburua «euskaldunon hizkuntza eskubideak euskarri digital bakarrera biltzea» da.

### Manual sobre a política lingüística durante a ditadura franquista

[Consello da Cultura Galega] Henrique Monteagudo analiza neste estudo a política lingüística da ditadura franquista, caracterizada pola imposición do castelán e a marxinación do galego, poñendo o foco na resistencia político-cultural galeguista ao réxime represor.

*Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.*

---

## Bestelako albisteak

### Euskararen familia bidezko transmisioa (Jon Aizpurua)

[IVAP aldizkaria] Euskarari dagokionez, mendeetan familia izan da transmisio-bide ia bakarra, ahaztu gabe, noski, azken hamarkadetan helduen euskalduntzearen eta, bereziki, hezkuntza-sistemaren bidez euskara biziberritzeko egiten ari den funtsezko lana.

### «Sin lengua no hay país y sin escuela no hay lengua»

[NAIZ] Pere Mayans UOC-eko Hizkuntza Katalanaren Historiaren irakasleari egindako elkarrizketa, besteak beste, Kataluniako murgiltze ereduan gaztelania %25 sartzearen inguruan.



SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA  
Euskara biziberritzeko  
ikergunea

Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Bazkide partaidea:

**emun**<sup>®</sup>  
Euskara eta  
berrikuntza soziala